

txintxarri

AVENIDA TABERNA

Eremu gorrian

Kutsatzeak eta intzidentzia tasa igo egin dira herrian; atek itxi behar izan dituzte ostalariek berriro, eta taldeko kirola eten da / 6-7

Irabaztera joan, eta ezin

Mikel Arruti 'El conquistador del Caribe' saioko lehiakidearekin hitz egin du TXINTXARRI-K / 8-9

Otsailaren 1ean
Emakumeen Zentroko
bigarren lauhilekoko
ikastaroen izen-
ematea irekiko da / 3

Naroa Furundarena,
jauzi hirukoitzeko
pista estaliko
Gipuzkoako
txapeldun / 12

TXINTXARRI

MERKEALDIA

hau da zure momentua

2 mó progresibo
erreflexuen aurkako lenteekin

199€
(lehen 229€)

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   



Astelehen goizean egin dute ezohiko saioa udal korporazioko kideek. LASARTE-ORIAKO UDALA

Mankomunitatea eratu bitartean, hitzarmena

Lasarte-Oriako udal korporazioak aho batez onartu du Beterri-Buruntza eskualdea sustatzen eta garatzen jarraitzeko hitzarmena luzatzea eta aldatzea. Gehien jota, akordio hori lau urte gehiagoz egongo da indarrean, 2025eko urtarrilera arte

Txintxarri

Ezohiko saioa egin du Oriako udal korporazioak astelehen goizean. Mahai bakarra jorratu dute, hura urgentziaz lantzea onartu eta gero: Beterri-Buruntza eskualdea sustatzen eta sozioekonomikoki garatzen jarraitze aldera, 2017ko urtarrilaren 27an sinatutako hitzarmena luzatu eta aldatzea. Lasarte-Oriak ez ezik, eskualdeko beste bost herriek ere bat egin zuten akordio horrekin duela lau urte: Andoainek, Astigarragak, Hernanik, Urnietak eta Usurbilek.

Hitzarmen hori, gehien jota, beste lau urtez luzatuko dute eskualdeko sei udalerriek, 2025. urteko urtarrilaren 26ra arte.

Ordurako espero dute Beterri-Buruntza Mankomunitatea sortuta egotea eta eskualde mailako egitasmoak abian jarri eta garatzeko moduan egotea.

Hitzarmena luzatzea, "ezinbestekoa" EH Bildurentzat

Arestian esan bezala, ezohiko udalbatzarrean landutako puntua aho batez onartu du udal korporazioak. EH Bildu izan da aldeko bozka azaldu duen alderdi bakarra. Jon Martin bozeramaileak nabarmendu duenez, 2017ko urtarrilaren 27an hitzarmena sinatu zuten sei udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilek) "bide oparoa" egin dute eskualdea

sozioekonomikoki garatzeko bidean: "30 programatik gora jarri ditugu martxan enplegua, ekintzailetasuna, enpresen lehiakortasuna eta lurralde garapena sustatzeko".

Alderdi horren aburuz, programa horiek garatzen jarraitzeko "ezinbestekoa" da hitzarmen hori luzatzea, nahiz eta argi utzi duen "behin-behineko irtenbidea" dela, Beterri-Buruntza mankomunitatea "operatiboa" izan bitartean. "Helburu nagusia hori da, mankomunitatea sortzea eta beharrezko baliabideez hornitzea; eskualde izaera garatzeko eta hori sozioekonomikoki garatzen jarraitzeko berebizikoa da".

Udal-tramiteak egiteko, B@kQ gakoa lortzeko aukera

"Hamaika izapide" egiteko baliagarria dela azaldu du udalak; udaletxean eska daiteke, edo, bestela, telefonoz

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udala, Osakidetza, Eusko Jaurlaritzak eta beste erakunde batzuetan online kontsultak, tramiteak eta bestelako izapideak egiteko aukera eskaintzen du B@kQ -baku

irakurtzen da- izeneko kodeak. Euskarri birtual batean dagoenez, irakurgailurik ez du behar, eta erabil daiteke edozein mugikor, ordenagailu edo tabletatan, edozein sistema operatibotan eta ezer instalatu beharrik gabe.

Dohainik jaulkitzen da kodea. Herritarrek udaletxean eska dezakete, aurrez aurre, edo, bestela, 943 37 60 55 telefonora deituta. Erabiltzaileek posta elektronikoa eta telefono mugikorra izan behar dituzte, B@kQ aktibatu ahal izateko. Hori egin ostean, arestian aipatu bezalako tramiteak egin ahaliko dituzte, eta gehiago ere bai: tasen eta zergen ordainagiriak zein eroldaren ziurtagiriak kontsultatu edo eta Osakidetzako osasun-karpetara sartu, beste batzuen artean.



Gipuzkoako PPKo kide Alejandro Saenz eta J.C. Cano Aristoy. GIPUZKOAKO PP

"Atsokabarreko kirol-gunea hankamotz jaioko da"

Gipuzkoako PPK nabarmendu du proiektu horrek "bultzada irmo eta definitiboa" behar duela

Txintxarri

Gipuzkoako PPrek ordezkariak, bozeramaileak eta aholkulariak, Juan Carlos Cano Aristoy eta Alejandro Saenz hurrenez hurren -azken hau zinegotzi izan zen Lasarte-Oriako udaletxean, 2015-2019 legealdian-, Atsokabarren izan dira berriki, etorkizuneko kirol-gunea izango den lur-eremuan. Azpimarratu dutenez, "beharrezkoa" da egitasmo horri "bultzada irmo eta definitiboa" ematea.

"Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Udalak ados jarri ez direnez, kirol-gune hori hankamotz jaioko da,

harmailik gabe", azaldu du Aristoyk. "Lur-eremu horretan harmailak eraikitzeke, Usurbilek eskatu zuen udalerriri eta kirol-gunea lotzeko bidegorri bat eraikitzea, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du hori onartu". Markel Olano ahaldu nagusiari aferan esku hartzeko eskatu dio Gipuzkoako PPK, proiektua "funtsezkoa" delako eskualde eta Gipuzkoa mailan. "Aurrekontuetan diru partida bat sartzeko eskatuko diogu diputazioari, bi udalerririk lotuko dituen bidegorria eraikitzeke; onartu ezean, emendakin bat jarriko dugu".



TXINTXARRI

Telleri kalea, kotxeentzat itxita

Oinezkoen eremua den Telleri kalean kotxerik ez aparkatzeko zigiluak jarri ditu Lasarte-Oriako Udalak. Bizilagunek helarazitako kexei (ezin lasai ibiltzea edo harrapatuak izateko arrisku handia izatea, adibidez) erantzuna eman dio era horretara udaleko Zerbitzuak batzordeak. 20:00etatik 08:00etara bakarrik utzi ahaliko dituzte euren ibilgailuak eremu horretan bizilagunek.

Udalak, ikastaroen "balorazio positiboa"

Sexuen Elkarbizitarako Emakumeen Zentroko bigarren lauhileko ikastaroen eskaintza aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak. Oro har, ikasgai berberak eskainiko dira. Otsailaren 1etik 3ra egingo da izen-emate berria; edukiera mugatua izango dute saioek

Txintxarri

Sexuen Elkarbizitarako Emakumearen Zentroko lehen lauhilekoko ikastaroak amaitzeaz daudela, bigarrenaren aurkezpena egin dute asteon udal ordezkariak.

Lehenik, zentroko teknikari Maite Iglesiasek lehen lauhilekoaren balorazio positiboa egin du: "Erabiltzaileek ikastaroen balorazio ona egin dute. Gainera, eta guretzat oso garrantzitsuena da, neurriak bete dira, eta ez dugu kutsatze bat bera ere izan".

Horren harira, Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak esan du osasun-neurri guztiak hartu direla ikastaroak aurrera eramateko, eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko euren esku dagoen guztia egingo dutela nabarmendu du.

Jarraipena

Saioak otsailaren 15etik ekainaren 25era eskainiko dira: Biodantza, yoga, ehoziariak, batukada, tai-xi... Aurreko lauhilekoko ikastaroak mantendu dira. "Oso harrera ona izan dute eta berriro ere antolatu ditugu", azaldu du zentroko teknikariak.

Erroldatuek 21,98 eurotik 51 eurora arte ordaindu beharko dute, ikastaroaren arabera; ez erroldatuek, berriz, 36,64 eurotik



Udal ordezkariak eta teknikariak aurkezpenean. TXINTXARRI

85 eurora. Udalbatzarrak tasak izoztu ostean, prezioak mantendu egin direla gogoratu dute.

Hala ere, "baliabide gutxiago dituztenei zuezendutako" doako ikastaroak ere badirela nabarmendu dute: Gorputza entzuten eta atentitzen ikasiz, Jantzi-konponketak eta patroiak, k a n t u a , b a t u k a , Egunerokotasunerako psikologia edo Gure kultur orokorra lantzen, esate baterako.

Izen-ematea

Izena ematea otsailaren 1ean, 2an eta 3an egingo da Sexuen

Elkarbizitarako Emakumearen Zentroan, goizeko 09:30etik 13:00era eta 15:30etik 19:30era.

Informazio gehiago jaso nahi duten herritarrek hiru aukera dituzte: zentrora hurbiltzea, 943 363 958 telefonora deitzea edo emakumezentroa@lasarte-oria.eus helbidera mezu bat idaztea.

Iglesiasek gogoratu du, pandemia dela-eta, ikastaroetako plazak mugatuak direla. Horregatik, izen-emateen kopurua plazak baino handiagoa bada, zozketa egingo dela nabarmendu du. Zozketa otsailaren 5ean egingo da, ostiralez, eguerdian, "ateak itxita".



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Indibidualismoa

Aste honetan norbaiti entzun diot sistemak urteak eta urteak pasatu dituela gizarte indibidualista bat hauspotzen, eta, bat-batean gizarte bezala zerbait egitea egokitu zaigunean, ez gairela erantzun bateratu bat emateko gai. Eta ez zaio arrazoirik falta.

Norbanako edo familia unitate bakoitza bere burbuilan sartuta dago: nire lana, nire denbora, nire aisia, nire umeak... Dena gure eremutik, norbanako edo familia unitate gisa, kudeatzen dugu, eta, ez gaude ohituta gauzak partekatzerara, ez bizipenak, ez materiala, ezta arazoak ere.

Oraingo izurrite honek agerian utzi ditu, ordea, sistema honen trazu zahar guztiak, hasiera-hasieratik, gainera. Supermerkatura arrapaladan joan zirenen horiei bukatu ote zaie komuneko papera?

2021ak itxaropena ekarriko zuela zioten, eta, etorri, etorri da txertoaren eskutik. Baina hor indibidualismoaren beste orban bat, itzela, izatez: tokatu ez, eta txertoa jarri duten horiek. Autoritate izanda, eredu izan behar, eta justu kontrakoa egin. Hau da, hau, marka. Eta, bide batez, goraintziak zurrunbiloaren erdian Andorrara joan diren horiei ere.

Ez gara ohartzen, ordea, nire negozioa ixtea ez dela bakarrik nire arazoa; ezta semea edo alaba norekin utzi ez edukitzea bere gelako batek positibo eman duelako. Gaixo bagaude ere sendatuko gaituztenak ez dira mediku edo erizain heroi horiek soilik izango. Arazo horiek denonak dira, eta kolektiboki erantzun behar diegu, negozioari eusteko irtenbideak eskatuz, kontziliatzeko aukerak galdeginez, osasun sistema sendo bat exijituz eta beharra dagoenean, baita musukoa jarriz edota etxean geratuz.

'Azken Ostirala' egingo dute

Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak Azken Ostirala ekimena egingo du gaur, ostirala, urtarrilak 29. 20:00etan jarri dute hitzordua Elizatze plazan. Handik Okendora arte joango dira, euskal presoen aldeko aldarriak zabaldu bitartean.

Hilero-hilero egiten dute ekimen hori eta, orain artekoetan bezala, herritarrek joatera animatu dituzte, eta indarrean dauden osasun-neurriak betetzeko eskatu.



TXINTXARRI

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Aurpegiko eta gorputzeko azala

- ✓ BERROREKATU
- ✓ BERRESKURATU
- ✓ BIRSORTU

Enhun birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean.

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

Tintorería **Lizardi** Tindategia

berria!

Uistin kalea 6
LASARTE-ORIA
610 28 61 05
tintolizardi@gmail.com

Arropa garbiketa eta konponketa

Manifestazioa, herri mailan eragiteko

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak bat egin du Larreko Mahaiak abian jarritako U30 Aldaketaldia ekimenarekin, eta ekitaldia antolatu bihar, larunbata, hilak 30, 12:30ean Okendo plazan, 'Zaldibar berririk ez, ez Zubietako erraustegian ez inon' lelopean

Txintxarri

Globalean pentsatu eta lokalean ekin leloari heldu dio Larreko Mahaia eragileak, eta U30 Aldaketaldia izeneko ekimena martxan jarri: "Helburua da, egun horren bueltan, klima- eta ingurumen-larrialdia salatzeko ekintzak antolatzea, ahalik eta herri, auzo, ikastetxe eta lan-zentro gehienetan", Larreko Mahaiak azaldu duenez. "Ezinbestekoa" iruditzen zaio planetari gertatzen ari zaiona herrietan bistaratzea, mundu mailako arazo bat lokalki ere salatzeko. Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak bat egin du egitasmoarekin, eta manifestaziora deitu larunbat eguerdirako, hilak 30, 12:30ean Okendo plazan. Ekintza hori ez ezik, hilabete hasieran Ahoztar Zelaietaren *Zaldibar zona zero* (Zaldibar zero eremu) liburuaren aurkezpena ere antolatu zuen.

Larunbat honetan ez, hurrengo astekoan, otsailaren 6an, beteko da urte bat Zaldibarko Eitzaga auzoko zabortegia amildu eta, besteak beste, bertan lan egiten zuten bi pertsona, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran, zabor eta lur azpian harrapatuta geratu zirenetik. "U30 Aldaketaldia ekimenaren bidez arazo hori gizarteratzen lagundu nahiko genuke, argi geratu baita Euskal



GuraSOS elkarteak deituta, giza-katea egin zuten urtarrilaren 23an Donostian. TXINTXARRI

Herrian, ingurumen alorrean, gauzak ez direla ondo egin eta ez direla ondo egiten ari", azpimarratu du Larreko Mahaiak. "Aldaketa behar eta exijitzen dugu".

Arratsaldean, Donostian

Herriz herri egingo diren ekitaldietako bat izango da Donostiako manifestazioa. Larunbat honetan izango da hori ere, arratsaldeko bostetan: Gladys Eneatik abiatu eta Bulebarrean amaituko dela zehaztu dute antolatzaileek. GuraSOS elkarteak iragan astean egin bezala,

Ertzaintzako Zuzendaritzari idatzi bat bidali dio Larreko Mahaiak: gogorarazi dio udalerrri mailako itxiera perimetralak ez duela indarririk gabe uzten herritarrek manifestatzera joateko duten eskubidea, "baita manifestazioa haien herritik kanpo egiten denetan ere".

"Larreko Mahaiak ez die herritarrei eskatzen konfinamendua urratzeko eta manifestaziora joateko; esaten die badirela argudio juridikoak erabaki hori babesten dutenak", argitu du eragile horrek.

Sagardo Berriaren Eguna bertan behera utzi dute aurten

Osasun-egoera ikusita, denboraldi berriari otsailaren 5ean ez, beranduago ekingo diote zenbait sagardotegik

Txintxarri

Sagardoaren Lurraldeak jakitera eman duenez, denboraldi berria iragartzeko ekitaldia bertan behera uztea erabaki dute, COVID-19aren gaur egungo egoera eta bilakaera zein izaten

ari den aintzat hartuta. Hortaz, otsailaren 3rako programatu zuten 28. Sagardo Berriaren Eguna ez dute ospatuko. Edari horren sasoi berria otsailaren 5ean hasiko da ofizialki, ostiralez. Sagardotegiek gogor

lan egin dute irekiera osasun-egoerara moldatzeko: zenbaitzuk orain hasi dira ateak zabaltzen, eta beranduago egingo dute beste batzuek, baldin eta haien herria eremu gorrian ez badago. Lasarte-Oria, esate baterako, gune horretan dago gaur-gaurkoz.

Hala ere, otorduak eman edo ez, Sagardoaren Lurraldeak azpimarratu du sagardotegiak irekita daudela, hara joan eta botilak erosi nahi dituzten horientzat.



'Fadoak entzuten zituen gizona' antzezlanaren une bat. TXINTXARRI

'Fadoak entzuten zituen gizona', gizontasunari buruzko bidaia

Xake Produzioak lanak oso bestelakoak diren bi gizon eta pertsonaia oso xeble bat batzen ditu

Txintxarri

Burgoseko errepide batean autoestop egiten ari den gizon bat jaso du Mariok. Kamiolaria gurasoen sorterrira den Portugalera bidean doa eta gelditzea erabakitzean ez daki alboan eseriko den gizona eskola garaiko ezaguna duela. Ander fado lehiaketa batera doa herrialde hartara eta bere gorabeherak kontatzen hastean jabetuko dira, urte askoan elkarren berri izan ez badute ere, elkar ezagutzen dutela.

Anderrek bizipen ugari partekatuko ditu Mariorekin, baina honi gehiago kostatuko zaio bere sentimenduen inguruan aritzea. Gizontasuna modu oso bestelakoan ulertu eta bizi dute, baina gauzak aldatzen joango dira Masku pertsonaia misterioitsuak bidaian jarritako "oztopoen" ondorioz. Ane Garabara in aktoreak

gorpuztutako pertsonaia honen jarduna ez zaie gehiegi gustatu beste biei, baina kultur etxeko ikus-entzuleei irria eta barrea eragin dizkie askotan.

Dataoen emanaldiak

Urtarrila amaitzean da, eta baita Lasarte-Oriako Udalak 2021eko lehen hilabeterako prestatutako kultur agenda ere. Otsaila iritsi aurretik, ordea, hitzordu bat dute herritarrek Manuel Lekuona kultur etxean, igande honetan, hilak 31. *Los fixies contra los crabots* filma proiektatuko dute auditorioan, 17:30etik aurrera. Sarrerak eros daitezke honezkero eta 3,80 euro balio dute.

Otsailerako eta martxorako programatutako proiektuak iragarri ditu Okendo Zinema Taldeak. Hilaren 6an, esaterako, *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentala ekarriko dute kultur etxera.



Sagardotegi denboraldia otsailaren 5ean hasiko da aurten. TXINTXARRI



Bizipozak dozena bat kantu eta 11 bideoklipez osatutako proiektua kaleratu du, 34 euskal sortzailerekin elkarlanean. BIZIPOZA

Abestuz gizarteratu, bizipoza oinarri hartuz

Bizipozako kide diren 11 eragileren errealitatea ezagutzera emate aldera, 'Mundu berri bat guztiontzat' kantu eta bideoklip sorta kaleratu berri du elkarte horrek. Proiektua 34 euskal sortzailerekin batera ondu du; dozena bat abestik eta 11 bideoklipek osatzen dute

Txintxarri

Bizipozak *Mundu berri bat guztiontzat* kantu eta bideoklip sorta ekoiztu du; elkarte hori osatzen duten eragileetako 11ri –gaur-gaurkoz, 35 dira– zuzenduta dago lana. 34 euskal sortzailerekin batera, elkarlanean sortutako lana izan da. Hamabi abestiz eta 11 bideoklipez osatuta dago proiektua eta, horrez gain, liburuxka formatuan eta elkartearen ilustrazio banarekin, bakoitzaren deskribapena, ipuintxoia eta abestiaren letra ere topa daitezke.

Bizipoza elkartearen osatzen duten elkarteetako 11k egunerokoan lantzen dituzten gaiak bildu dituzte kantu eta bideoklip sortan, haien errealitateari buruzko abestiak eta bideoklipak direla azaldu du Bizipozak: "Elkarte bakoitzaren mezua, musika, hitza eta irudiaren bidez gizarteratzeko helburua dute".

Hamabigarren abesti bat ere sortu dute. Joxe Mari Azurmendiren omenez egin dute hori. Hik Hasiko eta Bizipozako talde eragileko kidea

izan zen Azurmendi, eta 2020an zendu zen. Berak sortutako letrekin egina dute bere omenezko abestia.

Sortzaile ezagun asko

Xabier Zabala izan da hamabi kantuen konpositorea, eta, besteak beste, letragileen eta abeslariaren artean daude Aitor Gorosabel, Eñaut Elorrieta, Amaia Agirre, Julio Soto, El Drogas, Mikel Urdangarin, Anabel Arraiza, Unai Iturriaga, Aiora Renteria eta Itziar Ituño.



Kulturari eta bertsolaritzari leiho bat zabaltzen

Lerro hauen azpikoaren gisako bertsoak irakurri ahal izango dituzue datozen hilabeteetan, herriko Earra! bertso eskolan aurtengo ikasturtean errimekin, doinuekin, hitzekin eta euskararekin lanean eta jolasean ari diren ikasle finen eskutik. Eskolak eta TXINTXARRI-k martxan jarritako egitasmo honen helburua da kulturari leiho bat zabaltzea.

Urtarrileko bertsoa

Lehengo urtea ondo hasi zen begiak bete dizdira, baina ilusio eta argia itzali zitzaigun dida... gure munduan erdigunea bihurtu baitzen COVID-a ta orain irrifar egiten dugu begitara begira; muxuak delitu dira. (bis) Urte berrira igaro gara bi metrotako neurrira bi mila ta hoge bi bukatu da ta aro berri bat hasi da.

DBH3 taldea: Añes, Nikola, Aitana, Oihane, Nora, Xuban

Gurasoleku

0-2 urteko
Haur eta Gurasoentzako Egitasmoa

GurasoLANDIA 0-2 urte bitarteko lasarte-oriatar gurasoei zuzenduta

TtA KUN
Kultura Datas

HAUR ERAMAILE TAILERRA
(Hizlaria: Nerea Bordagarai URRUMA-Familien bidelagun)

EGUNA: Urtarrilaren 30ean
ORDUA: 10:00
LEKUA: Mertzero gunea

“LAU HANKETAN ETA OINEZ IBILTZEN, erakutsi edo ikasi?”
HITZALDIA
(Nerea Mendizabal- psikopedagogoa)

EGUNA: Otsailak 5
ORDUA: 17:30
LEKUA: Mertzero gunea

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: kultura@ttakun.eus 695 78 53 89

Hirugarren olatu betean

Koronabirusaren intzidentziaren igoera tarteko, Lasarte-Oria eremu gorrian dago urtarrilaren 22tik. Horrek eragin du, besteak beste, ostalariek haien negozioen atak itxi behar izatea beste behin. Azken astean 98 kutsatze erregistratu ditu Jaurilaritzako Osasun Sailak herrian

Txintxarri

COVID-19aren hirugarren olatuak busti du Lasarte-Oria ere. Gipuzkoako herri askotan gertatu bezala, gurean ere nabarmen igo da kutsatzeen kopurua azken asteetan, eta, horren eraginez, etenik gabe aipatzen den koronabirusaren intzidentzia tasa metatuak ere gora egin du, 500 kasuen batez besteko muga gainditu –herriek azken hamalau egunetan izandako positiboak kalkulatu, eta batez bestekoa egiten dute gero, 100.000 biztanleko– eta herria alerta gorrian jartzeraino.

Iragan astelehenean sartu ziren indarrean Eusko Jaurilaritzak iragarritako neurriak. Horietako batzuk ordura arte indarrean zeudenak baino murriztaileagoak dira: itxiera perimetrala udalerrri mailakoa da orain, esate baterako. Horrez gain, eremu publiko zein pribatuko bileren gehienezko pertsona kopurua seitek laura murriztu dute, bizikidetzaren unitate berekoak diren pertsonentzat salbu. Eremu gorrian egoteak, gainera, ekarri ditu neurri gehiago: 500 kasu edo gehiagoko intzidentzia tasa metatua duten udalerrietako tabernek eta jatetxeek itxi egin behar izan dituzte atak beste behin, noiz ireki ahalko dituzten jakin gabe. Lasarte-Oria gune horretatik noiz aterako den ez dago jakiterik. Badirudi igaroko dituela egun eta aste batzuk alerta gorrian, intzidentzia tasa metatua 724,60koa delako gaur-gaurkoz –urtarrilaren 27ko datuak izan dira TXINTXARRI-k edizioa itxi aurretik kontsultatu ahal izan dituen azkenak–, eta atzemandako kasuen goranzko joera ez delako eten oraindik. Ostalariei bakarrik ez, taldean kirola egiten duten talde eta klubei ere zuzenean

eragiten die Lasarte-Oria eremu gorrian egoteak, jarduera fisikoa multzotan egin ahal izatea baita 500ekoa baino intzidentzia tasa altuagoa duten herrietan galarazita dagoen beste gauza bat. Eskola Kirola egitasmoaren saio presentzialak, adibidez, bertan behera geratu dira, berriz hasi eta astebetetera.

Eusko Jaurilaritzak astelehen eta ostegunetan gaurkotzen du eremu gorrian dauden udalerrien zerranda –urtarrilaren 28koan, 79 zeuden denera–. Lasarte-Oria bertatik kanpora irteten denean, beraz, astearte edo ostiral batean ireki ahalko dituzte negozioak berriro ostalariek; orduan hasi ahalko dute taldeka entrenatzen klub eta eragileek. Hori, gaur egun indarrean dauden neurriak ez badira aldatzen.

Kutsatzeen igoera

Urtarril erdialdetik aurrera nabarmen kasu gehiago atzematen ari dira Lasarte-Orian. Hilaren 1etik 15era, egun bakoitzeko, batez beste, 3,7 kasu atzeman zituzten Osakidetzako beharginek gure herrian. Urtarrilaren 16tik 27ra, berriz, 14, ia lau bider gehiago –arestian esan bezala, asteazkeneko datuak izan dira aldizkari honek kontsultatu ahal izan dituen azkenak zenbakia inprentara bidali aurretik; egun horretan hamar positibo detektatu zituzten herrian–. Dena den, kontuan izan behar da falta direla egun batzuk hilabetea amaitzeko, eta bigarren hamabostaldiko

EREMU GORRIAN DAGO LASARTE-ORIA; NEURRI ARE MURRIZTAILEAGOAK EKARRI DITU HORREK

kutsatzeen zifra hori igo edo jaitsi egin daitekeela.

Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailaren datu epidemiologikoez diotenez, 2020ko martxotik 2021eko urtarrilaren 27ra, Lasarte-Orian 1.092 kasu positibo erregistratu dira, eta hamahiru herritar hil dira. 18.825 pertsona bizi dira gaur egun herrian, Open Data Euskadiren arabera. Beraz, biztanleen %5,8 kutsatu ditu koronabirusak orain arte; ehunetik ia sei pertsona, beste era batera esanda. 1.092 kasu horietatik 56 erregistratu ziren iazko martxotik uztaileta eta, gainontzeko guztiak, 1.036, abuztutik urtarrilera –28tik 31ra arteko datuen faltan–. Orain arte, koronabirusak azaroan izan du intzidentzia gehien Lasarte-Orian; 275 positibo atzeman zituzten Osakidetzako langileek hilabete horretan, bigarren olatu betean. Urrian, berriz, 218 kutsatze erregistratu zituzten. Azken hamabostaldiko erritmoari eutsiz gero, urtarrila litzateke 200 kasu edo gehiago aurkitu diren hirugarren hilabetea, pandemia lehertu zenetik.

Eskualdea nola dago?

Beterri-Buruntza eskualdeko sei herrietatik lau eremu gorrian daude: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta. Azken egunetan atzemandako kasuen eraginez, intzidentzia tasa metatuak igotzen ari dira, 500eko muga hori aise gainditzen –Hernanirena da laueta baxuena: 680,78koa, urtarrilaren 27ko datuen arabera–. Astigarraga eta Usurbilgo datuak, aldiz, ez ditu gorri kolorez ematen Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailak, horiz baizik, bi herri horietan koronabirusaren eragina baxuagoa delako, 100.000



Lasarteoriatarrei Loidibarren pilotalekuan egiten dizkiete COVID-19a duten ala ez

biztanleko 300 kasukoa baino txikiagoa, hain zuzen ere.

Urtarrilaren 27an, 35 kasu atzeman dituzte eskualdeko sei udalerrietan: Lasarte-Orian, esan bezala, hamar; Hernanin, bederatzi; Andoainen, zazpi; Usurbilen, bost; Astigarragan, lau; eta, Urnietan, bi.

EAEko datuak

Joan den asteazkenean 1.273 positibo atzeman zituzten EAEko hiru lurralde historikoetan: 186 Araban, 730 Bizkaian eta 342 Gipuzkoan. Hiru probintzietako

LASARTE-ORIAN BIZI DIREN BIZTANLEEN IA %6 KUTSATU DITU KORONABIRUSAK ORAIN ARTE

bakoitzaren intzidentzia tasa metatuta 500ekoa edo altuagoa denez, hiruak daude eremu gorrian, baita hiriburuak ere: Gasteiz, Bilbo eta Donostia.

Kutsatzeak atzemandako egiten diren PCR eta antigenoen proben positibotasun tasa %8aren bueltan dabil azken egunetan. Urtarrilaren 27koa, adibidez, %8,2koa izan zen. OME Osasunaren Munduko Erakundeak esana du %5 baino baxuagoa izan behar duela tasa horrek, pandemia "kontrolpean" dagoela esan ahal izateko. Koronabirusatik erietxeratuak diren pertsonen kopuruak hazten jarraitzen du: asteazkenean 94 paziente ospitaleratu zituzten, bezperan baino bost gehiago. Ospitaleetako plantetan 570 paziente daude oheratuta, horietatik 137 ZIU zainketa intentsiboen unitateetan.



Manifestazioa eta kanpaina



Manifestariak Okendo plazan elkartu ziren. TXINTXARRI



'Ostalaritza aurrera!' lelodun afixa ikus zitekeen. TXINTXARRI

Irteera, Okendotik Ostalaritza Lasarte-Oriak deituta, dozenaka herritar manifestatu ziren astelehenean herrian, eta sektoreari babesa adierazi.

Erdigunean barrena Eguraldi txarrari aurre egin, eta lau haizetara zabaldu zituzten manifestariak "Ostalaritza aurrera!" bezalako aldarriak.



Hornitzaile bat, kanpainako afixarekin. OSTALARITZA AURRERA




Berasategi Kafeak, egitasmoarekin bat. OSTALARITZA AURRERA


Kanpainarekin bat Ostalaritza Aurrera dinamikak kanpaina bat jarri du martxan, ostalaritzarekin lan egiten dutenak zenbat diren ikusarazteko asmoz.

"Ostalaritza baino gehiago" Hornitzaileak dira, besteak beste, ostalariekin egunero-egunero lan egiten dutenak. Berasategi Kafeak, adibidez.

egiaztatzeko probak, PCRak edo antigenoenak. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako 2020ko martxotik erregistratutako kasuak, hilabetez hilabete. TXINTXARRI



Azaro, abendu eta urtarrileko kasuen arteko konparaketa egiteko, ondoko grafiko hau egin du TXINTXARRI aldizkariko lantaldeak. TXINTXARRI

Lasarte-Oria eremu gorrian dauden herrien zerrandan sartu da aste honetan, eta horrek eragin du, besteak beste, taberne eta jatetxeek haien ateak itxi behar izan dituztela berriro, ostera noiz zabaldu ahalko dituzten jakin gabe –gaur-gaurkoz indarrean dauden neurriak eskuetan, herriaren intzidentzia tasa metatua jaisten denean gertatuko da hori, alegia, batez beste 500 kasu edo gutxiagokoa denean COVID-19aren eragina gurean–. Horren aurrean, neurri horiek indarrean sartu bezperatan, Lasarte-Oriako kaleetan barrena manifestazioa egin zuten herriko hainbat tabernarik eta ostalarik, herritar ugari atzean zituztela. Are: antolatzaileek zehaztu dutenez, beste herri

batzuetako ostalariek bat egin zuten deialdi horrekin, Donostia zein Villabonakoek, esate baterako.

Sektoreak bizi duen "egoera prekarioa" salatu zuten beste behin ere, eta diru laguntzak eskatu, argudiatuta hainbat hilabetez itxi behar izan dituztela negozioak; horrek "galera handiak" ekarri dizkiete ostalariei. Era berean, adierazi zuten eurak ez direla egoera honen "errudunak".

Ostalaritzaren atzean dagoena ikusarazteko Mobilizazioak eta protestak antolatzeaz gain, kanpaina bat ere jarri du martxan Ostalaritza Lasarte-Oriak azken egunetan, herritarrek eta politikariek ikus dezaten taberna eta jatetxeetan ez dutela soilik barraren atzean

lan egiten, terrazetan edo sukaldean; badaudela askoz ere komertzio gehiago haiekin lan egiten dutenak: harategiak, okindegiak, hornitzaileak, taxistak, fruta-dendak, loradendak, burdindegia, estankok...eta abar luze bat. "PSE-EEK eta EAJK guk aurkeztutako mozioren aurka bozkatu zuten urtarileko plenoan; ikusarazi nahi diegu ostalaritza baino askoz gehiago garena, ez tabernak eta jatetxeak soilik".

Nik ostalaritza babesten dut izena du kanpainak. Zuri koloreko esaldi bat, afixa beltz baten gainean. Ostalaritza aurrera! dinamikaren logoa ere ikusten da, gorriz. Bultzatzaileek zehaztu dutenez, gero eta jende gehiago batzen ari da ekimen horretara..

Maddi Zaldúa

Dituen urteen ia erdiak pasa ditu Mikel Arrutik (Lasarte-Oria, 1999) *El conquistador del Caribe* saioan parte hartzeko amesten. Hogei urte ditu, eta, horietatik, azken hamarretan ETB2ko saioaren jarraitzaile sutsua izan da. Abenturazalea eta lehiakorra dela azaldu dio TXINTXARRI aldizkariari, eta ezaugarri horiek baliatuta, aurtengo aukeraketa probara aurkeztu eta Dominikar Errepublikan lehiari aritzeko pasea ere lortu du.

Esperientzia horrek, ordea, inoiz imajina zezakeena baino denbora gutxiago irau du: bi egun. Lehenengo taldeko norgehiagoka galdu eta taldekide bat kaleratzeko agindua jaso zuen Arrutiren talde gorriak; Yocahuek. Horrela, izendapenetan bozka gehien jaso eta etxerako bidea hartu behar izan du. Burumakur eta haserre agurtu da, baina, orain, senide eta lagunengandik gertu, baretu zaizkio sentimendu horiek eta lasaiago aurkitzen da. Bizitako esperientziaren berri eman dio aldizkariari.

Nolatan animatu zara aurtengo edizioan parte hartzera?

Hamar urte daramatzat programa ikusten. Hasieratik erakarri ninduen eta identifikatua sentitu nintzen. Kirola oso gustuko dut txikitatik eta abenturazalea ere banaiz; gustatzen zaizkit horrelako esperientziak. Oso lehiakorra izan naiz txikitatik; oso erraz pikatzen naiz egunerokotasunean, hortaz, zer esanik ez lehiatzen ari naizenean.

Aspaldi agertu nuen etxean programan parte hartzeko gogoia, baina etxekoek esperantza zuten gogo hori desagertuko zitzaidala urteek aurrera egin ahala, baina ez da horrela gertatu.

Nola hartu dute gertukoek programan parte hartzera joatearen erabakia?

Etxekoek, batez ere amak, izugarriko beldurra zuen; ez zion ilusio handirik egin. Egia da, nire ametsa zenez, alde horretatik pozik agertu direla, onartu dute, baina beldurrez. Kuadrilakoek, neska-lagunak eta ingurukoek babes handia eman didate; bazekiten ilusio handia egiten zidala saioan parte hartzeak. **Ezinbesteko ezaugarria da lehiakortasuna Conquis bezalako saio batean parte hartzeko?**

Nire ustez, irabaztera baldin bazoaz behintzat, ezinbestekoa da lehiakorra izatea eta norbere buruarekin burugogorra izatea.

"Gau bakarra egin nuen Dominikar Errepublikan"

MIKEL ARRUTI 'EL CONQUISTADOR DEL CARIBE' SAIOKO LEHIAKIDEA

'El Conquistador del Caribe' saioaren VII. edizioako lehiakidea izan da. Denbora luzez itxaron du bertara joateko, baina uste baino lehenago amaitu da bere lehia



'El Conquistador del Caribe' saioan bizitakoaren berri eman dio TXINTXARRI-ri. TXINTXARRI

Saioan parte hartzeko prestaketarik egin duzu?

Betidanik egin dut kirola. Futboleak jokatu dut eta gimnasioan ere aritzen naiz. Aurtengo edizioan parte hartzeko aukeratua izan nintzela jakin nuenean, eskalada saioak egiten hasi nintzen. Aukeraketa castingaren aurretik ere, Usurbilera joaten nintzen han daukagun lur eremu bateko animaliak zaintzera, eta, bertan, soka batzuk jarri genituen, horiekin ere trebatu nedin.

Udan, Zintzilik izeneko enpresa batekin ere aritu naiz. *El conquistador del Caribe* saioan gainditu behar diren proba asko entrenatzeko aukera dago bertan eta han ere aritu nintzen. Elikadura aldetik ere egin dut jarraipen bat.

Nola antolatu duzu zure egunerokoa denbora batez munduaren beste puntara joateko? Ez da erraza izango egunerokoa izoztea, ezta?

Hasieran aurre-aukeraketa batean zaudela esaten dizute, baina lehiakidea izango zarela joan baino aste gutxi lehenago baieztatzen

dute. Hortaz, oso denbora gutxian utzi behar da guztia behar bezala lotuta, antolatuta.

Nire kasuan, ikasten ari naizenez, irakasleekin hitz egin nuen, eta ez dut inolako arazorik eduki, oso eskuzabalak izan dira unibertsitatean nirekin.

Dominikar Errepublikara iritsi, eta bi egunetara etxera buelta. Ezusteko ederra.

Hori da, bai. Gau bakarra egin nuen Dominikar Errepublikan. Oso momentu gogorra izan zen niretzat. Lehenengo taldeen arteko lehiaketa galdu eta gure taldekide bat etxera bidali behar genuela esanaz etorri zen Julian Iantzi – saioko aurkezlea–.

Hori gertatu aurretik, taldean pentsatzen ari ginen asanblada bat egingo genuela norbait duelora bidaltzeko, lehiatzeko. Orduan, Julian agertu zen; gure taldekide bat etxera, lehiatu gabe joango zela esatera etorri zen. Harriduraz jaso genuen erabaki hori, ezin genuen barneratu. Dena oso azkar gertatu zen gainera. Erabaki horren berri eman eta berehala hasi ginen taldekideak nominatzen. Oso momentu zaila izan zen denontzat; niretzat boto gehien jasotzearen ondorioz etxera nindoalako, baina taldekideentzat ere bai.

Momentu horretan gertatzen ari zena ezin sinetsi ikusi zintugun.

Bai, ezin nuen barneratu gertatu zena. Errealitate kolpe bat jaso nuen, sinesgaitza zitzaidan etxera

nindoala ezer egiteko aukerarik izan gabe.

Haserre hartu zenuen etxerako bidea. Bai, oso haserre. Programarekin oso haserre amaitu nuen. Iruditzen zait *El Conquistador del Caribe* bezalako programa lehiakide batek irabazten duela, merezita, eta nik, kasu honetan ez dut izan nire kabuz parte hartzeko aukerarik. Oraingoan ni izan naiz kaleratua, baina beste edonor izanda ere iruditzen zait telebista saioak, saio berezi bat izatearen esentzia galdu egin duela ekitza horrekin.

Lehiakide izateko sakrifizio asko egin behar dira, eta hori guztia zaindu ostean, hara iritsi eta bi egunetara, ezertarako aukerarik eduki gabe etxera itzultzea... Irabazteko prestatu nintzen, hori zen nire helburua.

Beste gauza bat litzateke duelora joan eta hori galduta etxera itzuli behar izan banu. Hori da programa, nik badakit nora noan eta badakit duelora joateko aukerak daudela, eta, noski, horiek galtzeko aukerak ere bai. Baina nire ibilbidea amaitu den bezala amaitzea...

Lehenengo talde proba galtzearen ondorioa izan da zure kaleratzea. Ez zen batere ondo joan zuen taldearentzat.

Oso talde ahaltsua daukagu, baina proba honetan talde osoaren pisu totalak kalte egin digu. Hamabi lehiakide eta kameraren artean 1.000 kilo baino gehiago batzen genituen, hori pisu asko da. Onartzen dugu, noski, gauza asko egin genituela gaizki, baina oztopo oso handia izan zen hori. Txalupan igo bezain pronto ura sartzeko zorian geunden, beste txalupekin konparatuta alde handia zegoen. **Taldearentzat ere, nominazioaren unea zaila izango zen, ezta?**

Bai, oso zaila. Guztioi asko kostatu zitzaigun nominatuaren izena esatea; batez ere lehenengoari. Azken finean, lehenengoak izena esanda, horrek ere balantza mugiarazten du alde batera edo bestera.

Konpromiso handiko unea izan zen, aurrepila esan behar izan genituen nominatuaren izenak, eta hori hala izateak are gehiago zailtzen du egoera. Izugarriko tentsioa antzematen zen. Oso une gogorak bai niretzako, kaleratua izan nintzelako, baina baita gainerako taldekideentzako ere. **Zu nominatzearen arrazoien artean, isila eta zure kasara ibili zarela**



Dominikar Errepublikara iritsi eta gau bat igaro ostean, etxera itzuli behar izan du Mikel Arruti lehiakide lasarteoriatarrek. ETB

argudiatu duten taldekidek. Zure estrategiaren parte izan da jokaera hori?

Bai. Nik *Conquis* programa duela urte askotatik jarraitzen dut eta oso argi neukan urrutira iristeko estrategia onena zela hasieran atentzio askorik ez deitzea. Atentzio gehiegirik deitu gabe partaideekin ondo eramatea zen nire helburua.

Eduki zenuen aukerarik taldekideekin gertatu zenaz hitz egiteko?

Etixerako bidea hartu baino lehen egon ginen, bai, baina momentu horretan ez zegoen gauza gehiegirik elkarri esateko. Lasai egoteko eskatu nien, nire atsekabea programarekiko zen, ez taldekideekiko; eurek jarri gintuzten testuinguru horretan. **Sendo eutsi zenion amorru guzti horri kaleratzearen uean.**

Bai eta harro nago izan nuen jarrerarekin. Egoera eusteko ahalmen handia eduki nuen momentu hartan, eta uste dut oraindik kaleratzea barnerratu gabe edukitzearen ondorio izan zela jarrera hori, ezin nuen beste modu batera erreazionatu.

Nola sentiñu zenituen Julian lantzi aurkezlearen orduko hitz haiek? Askok kritikatu dituzte.

Programa jarraitzen dugunok badakigu Julian nolakoa den. Egurra eman zidan kaleratzearen momentu hartan, baina, uste dut nire burua psikologikoki indartsua dela eta banekien Julianek egoera hartan zirikatatu egingo ninduela. Ez nuen joko horretan sartu nahi izan. Banekien nora nindoan;

telebista saioaren parte da aurkezlearen jarrera zirikatzaile hori.

Esan behar dut, iragan asteko lehenengo telebistako eztabaida saioan Julianek esan zidala kaleratzearen uean berak esandako ezerk minik eman izan balit, barkamena eskatzen zidala.

Sare Sozial batean ikusi nuen Julianen iruzkin batek min

gehiago eman zidan. Jartzen zuen nik ez nuela ezer egin saioan geratzeko. Horren inguruan ere hitz egin dut berarekin, eta argi utzi nion, nik ez dudala ezer egin kaleratua izateko.

Orain, etxera itzulita, nola zaude? Lasaitu da haserrealdia?

Bai, askoz lasaiago nago. Han sekulako disgustua hartu nuen, baina hona itzulita baretu dira sentimendu horiek. Trago txarra han irentsi nuen, hemen albiste guztiak onak izan dira, baina aitortu behar dut, telebistako lehen emanaldia ikusi eta telebista eztabaidaren lehen saioan parte hartzeak mugimendu asko eragin dizkidala. Ez dira aste errazak izan niretzat, gertatutako guztia gogora ekarri eta zail xamarra egin zait orduko bizipenak gogora ekartzea. Gogoa nuen lehen egun hauek pasatzeko.

Sekulako babes olatua zabaldu zen sare sozialetan zure kaleratzea eta berehala.

Bai, jaso dudana babesaren izugarria izan da. Euskal Herriko jende pila baten mezuak jaso ditut, batzuk ezagunenak eta beste batzuk ezezagunenak eta Euskal Herriko kanpokoan ere bai. Adibidez, Mikel San Jose Athleticoko jokalaria idatzi dit, eta David Seco Conquiseko ikurretako batek ere bai. Jende askok babestu nau. Nik, adibidez, Twitter kontua oso gutxi erabiltzen dut, baina ingurukoek abisatu zidaten sekulako olatua sortu zela, *Trending Topic* ere bilakatu zela gaia. Une horretan bazterrak

ederki nahastu nituela baino ez nuen pentsatu!

Eta gertatutakoa gertatuta, datorren urtean bueltatzeko aukera eskaini dizute orain.

Patxi Alonsoren keinua asko eskertu dut. Datorren urtean bueltatzeko aukera ez dakit kaleratzeak sortu duen olatuaren ondorioz hartu duten hala ez, ez dut hori baloratuko, baina, momentuz, zalantzak dauzkat. Ez nuen momentu horretan erabakirik hartu nahi, hain zuen ere, oso aste arraroak izaten ari direlako niretzat eta ez dut beroan erabakirik hartu nahi. Eskertzen dut eman nahi didaten lehenengo aukera, baina pentsatu egin behar dut.

Audientziaren %95ak datorren urtean Conquisen ikusi nahi zaitu.

Bai. Hor, gainera, esan didatenagatik, hasierako galdetegian nire kaleratzea justua izan zen edo ez galdetu zuten, eta ehuneko handi batek ezetz erantzun zuen. Gerora, ordea, galdetegi aldatu eta galdetu zuten ea nahi zuten ni datorren urteko saioan aritzea. Baina badirudi jendeak ez zuela behar bezala irakurri eta ezezko bozka batzuk, baiezko beharko luketela. Noski egongo dela jendea nahi ez duena ni datorren urtean *El Conquistador del Caribe* saioko lehiakide izatea, baina babes handia jaso dut hor ere.

Agertu dira hiru kapitainak eta Manu Maritxalar da zure taldearen gidaria.

Aurtengo hiru kapitainak nortzuk izango ziren jakin gabe, aireportura eraman ninduten egunean, hara iritsi aurretik ondorioztatu nuen talde gorriaren kapitaina Manu Maritxalar izango zela. Castingean esan genuen denok Manu ez genuela gure kapitaina izaterik nahi, eta Bilbora iritsi aurretik argi neukan bera izango zela. Horrez gain, aireportura iritsi eta ikusi nuenean talde gorrian Patxi ere lehiatuko zela, eta jakinda iazko programan Manurekin izan zituen arazoak, ziur nengoen. Ez zegoen beste aukerarik.

Manu pertsonalki ezagutzen ez dudana arren, jatorra iruditzen zait, nahiko bizkorra badela uste dut, baina kapitain gisa azkena aukeratuko nuke, probetan kalte egin diezaiokelako taldeari. Yocahueen ahalmena ikusita, argi dago kapitain ahulago bat jarri behar zirela probak irabaztea ekiditeko.

Nolako taldea da gorria? Nolako lehiaketa egingo dutela aurreikusten duzu?

Lehenengo urtean, adibidez, talde ahaltsua egon zen, baina nire ustez, bazeuden baita ere zertxobait ahulagoak zirenak. Aurtengo talde gorria, ordea, oso konpletua ikusten dut, ez bat beste bat baino ahulagoa izan daitekeenik ikusten. Orokorrean, nik Conquisen ikusi dudana ahaltsuenetakoa.

Esan behar da baita ere taldekide guztiak oso lehiakorrek garela, eta horrek ere ekar ditzakeela arazoak, batez ere probetan. Ni lehiaketan egon naizen bitartean giro ona sumatu dut, baina probetarako kapitain edo lider on bat behar dela uste dut.

Eta beste bi taldeak?

Nesken taldea ere oso talde ahaltsua da, berriz ere orain arte ikusi ditudanetatik ahaltsuena. Dueloetan talde horretako lehiakideren bat irabaztea oso zaila izango da. Ikusi beharko da nola doan lehiaketa; guk lehenengo probarekin pisuarekin arazoak izan ditugun bezala, agian, beste proba batzuetan eurek ere izan ditzakete zailtasunak.

Talde urdina, aldiz, azken urteetako joerari eutsiz, aurtun ere multzo xeblearegoa osatu dute, baina, aurreko edizioetako talde urdin xebleekin alderatuta, iruditzen zait potentziala badagoela eta kapitain on batekin lehiaketa ona egin dezaketela. Fisikoki oso ondo prestatuta daude, eta urrutira iristeko oso prest ere bai.

Baduzu faboritrik?

Bilboko aireportura iritsi nintzenean nire taldekide Beko ikusi nuen mehatxu edo aurkari handiena. Suhiltzailea da eta adin-tarte onenean dago. Iker Salinasekin erlazio oso ona izan nuen programan egon nintzen ordu horietan, eta buru oso ona daukan pertsona bat dela uste dut. Fisikoki eta psikologikoki oso prestatuta dagoela uste dut, hautagai gogor bat da, eta zortetik onena opa diot.

Eskerrak emanaz amaitu du Arrutik TXINTXARRI-ren elkarrizketa. Etxekoak, neskalaguna, kuadrillakoak, eta abar izan ditu gogooan: "Eskerrak eman nahi dizkiet nire ametsa egia bihurtzeko babesaren eman didaten guztiei, eta baita ni kaleratu ostean babes mezuak bidali dizkidan orori ere bai".





Buruntzaldea IKTKo igerilariak, lehiaketa batean. TXINTXARRI

"Kirola oinarrizko jarduera izatea"

Lasarte-Oria eremu gorrian dago urtarrilaren 22tik, ostirala. Ondorioz, beste behin, Eskola Kirola egitasmoa eta eskola mailako kirol jarduna eten da. Maila horietako kirol jardueraren egoerari buruzko iritzia jasotzen ari da TXINTXARRI aldizkaria azken asteetan

Txintxarri

Gutxi irau du poztasunak. Eskola mailako kirola martxan jarri eta astebetera, haur eta gaztetxoak kirolik gabe geratu dira, Lasarte-Oria eremu gorrian sartu da-eta. Metatutako intzidentzia tasa 500etik jaitsi arte ezingo zaio berriro jarduerari ekin. Eusko Jaurlaritzak kirola oinarrizko jarduera bezala onartu beharko lukeela uste dute herri elkarte zein gurasoek.

Kalte "handia"

LOKE judoko Gorka Aristegi prestatzailearekin hitz egin genuen lehengo astean, eremu gorrian sartu baino lehen. Aristegi pozik zen eskola mailako kirola berriro ere martxan zegoelako. "Taldea topera daude eta gurasoak ere animatuak daude".

Ikasturte honetan, taldeko txikiek entrenatzeko aukera gutxi izan dituztela nabarmendu du. "Ezin izan dugu tatamian ia

ezer egin. Hilabete egin genuen ikasturte hasieran, eta, orain, aukera dugu berriro gelditzeko, esaten digutenera arte".

LOKEko prestatzaileak kezka ugari ditu LABIk ezarritako neurriekin. "Eremu gorrian sartzeak beldurra ematen dit. Gune horretan sartuz gero, etenaldi berria izango dugu eta ez dakigu noiz arte. Kirolarientzat kaltegarria izango da".

Izan ere, pandemiak kirol arloan sortutako egoera "desastre bat" dela uste baitu Aristegik. "Haur eta gazteek kirola egin behar dute, haien ongizaterako. Beraz, nire ustez behintzat, eskola mailako kirolaren itzulera beharrezkoa da".

Horregatik, lehengo asteko berrian zehaztu bezala, LOKEko atalek Bultza Kirola Euskadi plataformarekin bat egin zutela azaldu ditu. "Bertan egon gara lanean, eta beharrean jarraituko dugu. Kirolean positibo gutxi egon dira eta neurriak hartuz

gero, kirol-jarduerak aurrera eramane daitezkeela uste dugu".

"Diskriminazioa"

Buruntzaldea IKTKo kideek ere eskola mailako kirolaren alde ari dira lanean eta bat egin dute Bultza Kirola Eskola plataformarekin.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu moduan, "haurrak ez dira eremu kutsatzaile handiak eta gainera, bereziki kirol klubetan dagoen kontrol maila dela-eta, egon litezkeen kasuak berehala mozten dira. Plataformaren ideiarekin bat eginik, kirola eta jarduera fisikoa ezinbesteko jarduerak dira eta halaxe deklaratu behar lukete, eta, ondorioz, inongo dekretutan debekuen artean ez sartu".

Oso kritiko agertzen da Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriekin. "Jarduera martxan jartzeko lan handia izan behar izan dugu, milaka gauza: protokoloak eta kontingentzia

plana landu, espazioak kudeatu, gurasoekin bilerak... Baina elkarteek egindako aurretiko lan hori guztia zenbait dekretutan bertan behera kolpetik uzten da. Eusko Jaurlaritzak inoiz ere azalpen eta justifikazio zehatzik eman gabe, eskola-umeen jarduera bertan behera utzi du, martxokoan bezala haurrak zigortuz eta horrekin batera kirol taldeak ere kaltetuz".

Izan ere, etenaldi bakoitza "berrantolaketa prozesu oso bat" baita taldearentzat. "Nortzuk geratzen diren, nortzuk jarraitzen duten, jarraitzen dutenen ziurtagiriak prestatu eta bidali, kiroldegian espazioen erabilpena berrikusi, oharrak prestatu eta bidali, kuoten egokitzapenak egin... Aldaketa bakoitzak lan eskerga handia suposatzen digu, zalantzarik gabe".

Horrez gain, egungo neurriek "diskriminazioa" sortzen dutela salatu du Buruntzaldea IKTKo ordezkariak. "Jarduera bera, eremu bera, adin bera, ikastetxe bera, lagun talde bera...duten haurrengan diskriminazioa sortzen ari da, batzuei jardueran jarraitzea ahalbidetuz, eta, orokorrean, kirol taldeetan daudenei debekatuz. Orain indarrean dagoen 1/2021 dekretua horren adibide gardena da, eta baita aurrekoa ere".

Horregatik, Apeztegiaren ustetan, "diskriminazio zentzugabe horrekin amaitu beharra dago, edo, agian, izango du ezkutuko zentzuren bat. Ezaugarri berberak dituzten hurrei jarduera norekin egiten dutenaren baitan ahalbidetu edo debekatzea onartezina iruditzen zaigu".

Gurasoak ere, kirolaren alde

Eskola mailako kirolak etetea "pena" dela azpimarratu dute TXINTXARRI-k elkarrizketatu dituen gurasoak.

Jon Arroyo Beltzak RTko gurasoetako bat dugu. Bi seme ditu, biak errugbi jokalaria: zaharrena Zarautzeko taldearekin ari da lanean; txikia, berriz, 14 urteko taldean dago.

"Pena handia da horrela ibiltzea. Gazteek gogo handiak dituzte eta dituzten aukera horiek aprobetxatu nahian ari dira lanean. Baina alukeria da horrela ibili beharra", adierazi digu.

Entrenamenduak neurri berrien arabera egitea talde eta kirolarientzat bidezkoa ez dela

uste du. "Aurreko astean, esate baterako, entrenatzeko asmoa agertu ziguten entrenatzaileek, baina ikusita eremu gorrian sartuko ginela eta ez zela entrenamendu gehiago izango, gurasoek hastea merezi ez zuela esan genien, eta ez zen egin. Asko eskertu zuten gure erabakia".

Arroyoren ustetan, "luzerako" joango denaren itxura du. "Denboraldi hasieran argi utzi ziguten, urtarrilara arte behintzat, ez zela lehiarik izango eta gero ikusiko zela nola egin ahalko zen. Urtarrilean gaude eta denboraldia ezer egin gabe joango dela dirudi. Pena ematen d it, u m e n g a t i k e t a taldearengatik".

Izan ere, eskola mailako kirola trebakuntzako garaia baita Beltzak RTko kidearentzat. "Urte bat galtzea da, eta urte horiek oso garrantzitsuak dira. Orain arte, nire semea baloiarekin jokoan egon da, eta jokoaren nondik norakoak barneratu ditu, baina, orain, taldean nola jokatu ikasten hasi behar zen, eta garapen hori geratzea pena da".

Leire Berasategik ere bi seme-alaba ditu. Zaharrenak bi urte daramatza LOKEko judo atalean lanean. "Haurrek kirolik ez izatea tristea da. Kirola oinarrizkoa da niretzat, ingelesa edo beste edozeren gainetik. Izan ere, haurren psikomotrizitatea lantzeko beharrezkoa da. Gainera, kirol bakoitzak trebetasun eta balio ezberdinak lantzen ditu. Hori guztia galtzen da, oinarrizko gauza asko".

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak kirol arloan hartutako neurri murritzailerekin bat ez datorrela azaldu digu. "Bizitzak jarraitzen du normaltasun batekin eta nire ustez neurriak ez datoz bat. Kiroldegiko ikastaroei aurrera jarraitzen dute, baina, eskola mailako kirolak, ez, eta ez da ulergarria. Edo dena kentzen da, edo denak jarraitzen du. Ezberdintasun horiek ez dira ulergarriak".

Gainera, umeentzat, bat-bateko aldaketa hauek ulertzea zaila dela nabarmendu du: "Gustura hasi da berriro judoan eta Eskola Kirolean, eta, bat-batean, ez du kirolik. Aste batean bai, eta bestean ez; haientzat, ulergaitza da".

Aurrera begira ere zer gertatuko den ezin dela jakin azpimarratu du, eta, neurriak neurri, hurrek ondorioak ez pairatzea espero du.

"Jarraitzeko, denok jarri behar dugu gure aldetik"

JON IBISATE ALDAY ERRUGBI EPAILEA

COVID-19aren garapena dela-eta, errugbiko hainbat txapelketa geldirik izan dira eta urtarrilean hasi da herritarra, berriro ere, epaile lanetan

Nerea Eizagirre

Jon Ibisate Alday (Lasarte-Oria, 2000) 14 urterekin hasi zen errugbi partidak zuzentzen. Galduta du epaitu dituen partidaren zenbatekoa. Egun Euskadiko lehen mailan epaile nagusi eta Espainiako mailan lehen mailako marrazain lanetan dabil herritarra. Kirolariengan bezala, COVID-19aren neurriek eragina dute epaileen lanean ere. Urtarrilera arte, Ibisatek ez du partidarik gidatu. Harekin bildu gara bere jardunaren berri izan eta pandemiarekin zer ikusia duten beste hainbat gaiei buruz hitz egiteko.

COVID-19ak nola baldintzatu du zure lana?

Urri amaiera arte eta urtarril hasierara arte ez dut epaitzeko aukerarik izan.

Espainiako liga urriko azken asteburuan hasi zen, eta gaur egun martxan dihar du. Euskadikoa, ordea, urtarrileko lehen asteburuan hasi zen.

Zein aldaketa izan dituzue?



Jon Ibisate Alday epaile lanetan. TXINTXARRI

Espainia mailan, epaitu baino hiru egun lehenago gutxi gora behera, antigenoen test bat egiten dugu, negatiboak garelako ziurtatzeko. Euskadin, ordea, ez dago frogarik; instalazioetara sartu baino lehen temperatura hartu eta kito.

Euskadin, emakumeen eta gizonezkoen lehen mailak bakarrik ekin diote denboraldiari, hortaz, partida bakoitzera hiru epaile joaten gara, gauzak profesionalago diruditelarik.

Errugbia kontaktuko kirola izanik, ez duzue beste aldaketarik izan? Ez da arau egokitzapenik izan?

Ez. Egungo errugbia ohiko errugbia da, inongo aldaketarik gabekoa maila gorenetan.

Umeen kasuan, eskola kiroleko murriztapenak direla-eta, zertxobait aldatu da kirola praktikatzeko modua.

Konfinamendu arintze garaian, egokitzapenak izango zirenen zurrumurruak egon ziren. Ukituzko errugbia aipatzen zen irtenbide bezala. Zer da ukituzko errugbia eta zertan datza?

Nik ez dut horren berririk izan, hasiera batetik kontaktuko errugbia itzultzea zela helburu jakin nuen.

Dena den, ukituzko errugbia edo *tocata* deritzona, beste errugbi modalitate bat da, non aurkaria plakatu ordez ukitu-heldu egiten den. Normalean, taldeek ukituzko errugbia entrenamenduetan erabili ohi dute.

Beraz, lehiaketa guztiek aurrera egiteko, jokariengan eta taldeengan jarri da erantzukizuna.

Azken finean, kirol honekin aurrera jarraitu nahi badugu, denok jarri behar dugu gure aldetik.

Espainiako mailan, testak egin arren, hiru egun lehenago egiten dira, eta ez dira %100ean zehatzak, hortaz kutsatzeak ekiditeko zelaitik kanpo ahalik eta prebentzio gehienak hartu behar dira.

Zelai barruan, berriz, nahikoa zaila da kutsatzea, izan ere distantziak esanguratsuak baitira, eta segurtasun neurriak mantentzen dira.

Hala ere, Aviron Bayonneseko kasua eta bere ondorioak esanguratsua izan dira, Champions Cupa eta Challenge Cupa bertan behera geratu dira. Protokoloak ezberdinak izateari egotzi diote. Nazioartean epaile lanetan izan zarenez, nola eragin dezake horrek zuen lanean? Eta kirolean?

Lehen aipatu bezala, testak egin arren, kutsatzeko aukera asko dago eta Aviron Bayonneren kasuan horixe bera gertatu zen, EPCR eta TOP14 ligeen protokolo ezberdinak izanik.

Pertsonalki uste dut nazioarteko txapelketak ez direla berriro hasiko, izan ere, kontaktuak murrizteko garaia baita, eta, kanpora joanez gero, Baionan gertatuta, kasu gehiago atzeman baitaitezke. Kutsatze horiek, partidak bertan behera geratzea eta atzeratzea dakar, txapelketa gehiago luzatuz, eta klubei ez zaie interesatzen, ondoren partida gehienak segidan jokatu beharko baitituzte.

"KUTSATZEAK EKIDITEKO, ZELAITIK KANPO AHALIK ETA PREBENTZIO HANDIENAK HARTU BEHAR DIRA"

Pandemiak baldintzatutako Seven mailako Euskal Liga

Urtarrilaren 16an jarri da martxan. Hernaniko taldean dagoen Paola Vega herritarrak parte hartuko du lehian

Txintxarri

Urtarrila hastearrekin batera, Euskal Ligari hasiera eman diote errugbiko hainbat mailek, hala nola, emakumezkoen Seven mailak.

Hasiera zaila izan dute. Partida ugari atzeratu behar izan dituzte COVID-19ko kasuak izan edo jokalariek konfinatuta egoteagatik.

Horregatik, urtarrilaren 16an, Hernaniko Landare-Toki zelaietan jokatu zuten emakumezkoen Seven mailako lehen jardunaldian zazpi taldeetatik hiruk bakarrik

parte hartu zuten saioan: Hernanik, Orkli Ordiziak eta Iruñeako La Unica. Etxeko taldean Paola Vega herritarra ari da jokoan.

Egoera ikusita, hiruko bat jokatu zuten. Hernani ezin izan zuen La Unica garaitu 19-24, baina Ordiziaren aurka arantzatxoa atera zuen, 24-19.

Gainerako taldeak (Durango RT, Gernika RT, Elorrio RT eta Uribealdea RKE) lehiaketara gehitu bitartean, hiru talde horiek larunbatean bigarren jardunaldia jokatuko dute

Ordiziako Altamira estadioan, 15:30etik aurrera.

Garaipenak, ihes

Bien bitartean, Estatu mailako Ohorezko B mailako txapelketa aurrera doa. Gesalaga Osalan Zarautz taldeak ez du zortetik azken partidetan. Bera-Bera eta Ferrol izan ditu aurkari azken bi asteetan eta bietan arerioa izan da garaile.

Urtarrilaren 16an, partida berdindua bezain lehiatua jokatu zuen Zarautzeko taldeak Bera-Beraren aurka. Garaipenak, ordea, azken unean eskuetatik ihes egin zion Gesalaga Osalan Zarautzi, 27-19.

Azken jardunaldian, berriz, CR Ferrolek eraman zuen garaipena, Astin jokatu zen neurketan. Beñat Arroyo herritarra titular izan zen eta Jokin Belokik minutuak jokatzeke aukera izan zuen.



Paola Vega herritarra, frentez, seven mailako partidari. JOSE JUAN GURRUTXAGA

Baloia mugimenduan jarri zenetik, Ferrol nagusi izan zen. Aurrea hartu zuen markagailuan eta 17 tantoko tarte lortu zuen. 53. minutuan egin zuen Zarautzek lehen entsegua, Zumetaren eskutik; gero, Sedranek transformatu zuen. Zarautzek gerturatzeko ahaleginak egin

arren, Agirrerren entsegua eta Sedranen transformazioarekin, Ferrolek partida eskuan zuen eta azken entsegu batekin erabaki zuen azken emaitza, 14 eta 22koa.

Aste honetan, larunbatean, beste euskal derbi bat jokatuko du Gesalaga Osalan Zarautzek, Eibarren aurka.

Naroa Furundarena, Gipuzkoako txapelkun

Lasarte-Oriako atletak pista estaliko Gipuzkoako txapelketan lehiatu dira. Ostadar SKTko Naroa Furundarena jauzi hirukoitzeko garailea izan da; Real Sociedad taldeko Yeray Veronizek, berriz, 60 m. probako brontzeko domina eskuratu du

Txintxarri

Ostadar Atletismoko kirolariek Gipuzkoako Txapelketako lehen saioan parte hartu zuten larunbatean, Donostiako Antonio Elorza belodromoan. Guztien artean, Naroa Furundarenak lortu zuen emaitzarik onena. Jauzi hirukoitzeko txapela jantzi zuen herritarrek, bitan 12,36 metro jauzi egin. Beste herritar batek ere lortu zuen domina: Real Sociedad taldeko Yeray Veronizek brontzeko postuan amaitu zuen lehia.

Ostadar Atletismoa sailak talde gaztea aurkeztu zuen Gipuzkoako Txapelketara. Oscar Goikoetxea entrenatzaileak azaldu digunez, gehienak 16 urte azpiko mailako kirolariak izan ziren, eta euren lehen lehiaketa ofiziala zen.

Horiez gain, Naroa Furundarenak ere parte hartu zuen eta jauzi hirukoitzean nagusi dela erakutsi zen herritarrek. Lehen jauzian lortu zuen marka eta hori gainditu nahian lehiatu zen gainerako saiakeretan. Lehiaketako azken jauzian gertu ibili zen, baina marka bera egin zuen.

“Oso marka ona da Naroak lortutakoa. Bere markatik oso gertu dago, eta bere pistako denboraldi hasierako marka onena da”, adierazi du Ostadar SKTko prestatzaileak.



Naroa Furundarena, jauzi hirukoitzeko podiumean. OSTADAR ATLETISMO

Jauzietako probez gain, abiadura lasterketetan ere parte hartzen du herritarrek eta 60 metroetako proban izan zen lehian. Finalerako sailkatu zen Furundarena, 7,92 segundoko markarekin. Finalean, ordea, jauzien txapelketako nekea nabaritu zuen, eta seigarren postua eskuratu zuen.

Lasterketa berean, Atletico San Sebastianeko Maria Eugi herritarrek parte hartu zuen. Eugik, Furundarenak bezala, 7,92ko marka egin zuen bere sailkapen lasterketan, eta finalean

podiumetik gertu ibili zen; laugarren postua eskuratu zuen.

Brontzeko domina

Beste herritar batek ere domina eskuratu zuen. Real Sociedad taldeko Veroniz hirugarren izan zen 60m. probako finalean, 7,02 segundoko markarekin.

Guztia ondo bidean, asteburu honetan Euskadiko Txapelketa Absolutua jokatu da, eta otsailaren 6an, igandez, Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia izango da. Lasarte-Oriako atletek lehenen artean egotea espero dute.



Intza eta Tolosaren arteko partidako puntuak etxean geratu ziren. TXINTXARRI

Balio bikoitza duen garaipena erdietsi du Intzako bikoteak

Partidako puntuak irabazteaz gain, Ezker Hormako hurrengo faserako sailkapena lortu du senior bikoteak

Txintxarri

Intza elkarteko bigarren mailako senior bikoteak ongi berrekini dio Ezker Hormako Txapelketari. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak Tolosako bikotea izan zuten aurrez aurre Michelingo pilotalekuan eta 22-5 gailendu zen. Urtarrilaren 23an jokatu zuten.

Joxe Felix Solano prestatzaileak azaldu digunez, espero baino partida errazagoa jokatu zuen Lasarte-Oriako bikoteak. "Mikel Elola ongi ibili zen atzean; Jon Pello Artetxe, berriz, bikain, aurreko koadroetan. Nahiz eta emaitza hain erabagarria izan, tanto ikusgarriak eta politik egin zituzten bi bikoteek".

Sailkapena eskuan

Jardunaldi bat geratu arren, garaipeneko puntuari esker, matematikoki bere multzoko lehen sailkatua da Intzako bikotea. Beraz, Ezker Hormako

bigarren fasera sailkatuko litzateke.

Tamalez, Lasarte-Oria eremu gorrian dago, eta, egoera horrek, taldearen entrenamenduak etengo ditu, baita partidak ere.

Egoeraren bilakaera ikusita, ez dakite oraindik fase hori noiz eta nola jokatu den, ezta lehenengoa noiz amaitu ahalko duten ere. Izan ere, Intzako bikotearen hurrengo aurkaria Andoaingo Gazteleku taldea izango da, eta Andoain ere gune gorrian dago.

Gainerako txapelketa federatuen hasiera ere atzeratuko dute Intzako kideek. Asteburu honetan, Jon Pello Artetxek eta Haritza Diaz de Guereñuk buruz buruko txapelketa bana hasi behar zituzten. Artetxek, Lau eta erdikoa, eta, Guereñuk, trinketekoa. Eremu gorritik atera arte, ezingo dute pilotalekura itzuli.

Añorga, puntuz puntu, sailkapeneko bigarren postura

Azken asteetako emaitzei esker, garaipen eta berdinketa bana, sailkapenean gora egin du taldeak

Txintxarri

Añorga KKE taldeak bosgarren jardunaldian atzeratutako partida jokatu zuen larunbatean Rezolako zelaian. San Ignacio taldea izan zuen aurrez aurre eta banako berdinketa lortu zuen Javi

Solchagak zuzentzen duen taldeak.

Aurreko asteburuan, Bizkerre FT 2-0 garaitu ostean, sailkapeneko bigarren postua lortzeko gogoz iritsi zen Añorga norgehiagokara. Bilboko taldeak

ez zuen erraz amore emango eta bederatzigarren minutuan aurreratu zen markagailuan jokaldi nahasi batean.

Javi Solchagaren taldeak berdinketa bilatu zuen, baina bigarren zatira arte ez zen saria iritsi. 50. minutuan zelaira sartu zen Izaskun San Aniceto herritarra eta bere eskutik lortu zuen Añorgak berdinketa. 75. minutuan. Aurrelariak goitik gainditu zuen atezaina.

Bi taldeak garaipenaren bila ibili ziren azken minutuetan,



Ainara Del Olmo, eskuinean. CONCHI SANCHEZ FRAIL

baina, azkenean, puntu banaketarekin amaitu zen partida.

San Anicetoz gain, Ainara Del Olmo herritarrek ere parte hartu zuen neurketan; hasierako hamaikakoan izan zen.

Puntu honi eta Bizkerre FTren aurkako hiruei esker, Añorga multzoko bigarren postura iritsi da.

Aste honetan, Nazional mailako taldeak Oiartzunen aurka jokatu du, Oiartzungo Karla Lekuona zelaian.

ZORION AGURRAK



Unax
Datorren asteazkenean 4 urte beteko dituzu, zer azkar pasatzen den denbora, jarraitu horrela gure bizitza pozten eta alaitzen. Asko asko maite zaitugu famili osoak. ZORIONAKKKKKKK!



Aitona Patxi
Zorionak aitona asko maite zaitugu!! 90 muxe potolo. Etxekoak.



Oier
11 urte jada!!! Muxu haundi bat familiaren partez. Oso ondo pasa zure egunean. Zorionak!!!



Jon
Zorionak!!!! Ondo pasa zure urtebetze eguna. 10 muxe haundi aita, ama eta Iraien partez. Asko maite zaitugu.

KOMIKIA



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.


Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ez ahaztu irudiaz.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 29




Larunbata, 30




Igandea, 31




Astelehena, 1




Asteartea, 2



Asteazkena, 3



Osteguna, 4



JAIOTAKOAK

Aren Hernando Fernandez. Urtarrilaren 25ean.
Ibor Enara Martin Baltodano. Urtarrilaren 25ean.
Paula Lopez Perez. Urtarrilaren 21ean.

HILDAKOAK

Juana Urruzola Aristimuño. Urtarrilaren 25ean.

SUDOKUA

4		3	8					6
	5							8
	8	7			1	3		
			7	4				
			5	6				1
		2	1	8	3	9		
					6	2	7	9
		9				6		
3		9	7				5	4

OHARRA

Udal Euskaltegiaren ikasteko azken plazak

Udal Euskaltegiak jakinarazi duenez, B2 mailan ikasteko plazak daude libre: horietako bi, 15:00etatik 17:30era ariko den taldean; beste hiruak, berriz 18:30etik 21:00etara ikasiko duenean. A1, A2, B1 eta C1 mailetan tokirik ez dagoela gehitu dute.

Informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 943 36 16 21 telefonora deitu behar dute, edo euskaltegia@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatzi.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 29 LASA
LARUNBATA, 30 GIL
IGANDEA, 31 GIL
ASTELEHENA, 1 URBISTONDO
ASTEARTEA, 2 ACHA-ORBEA
AZTEAZKENA, 3 GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 4 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garaje itxi bat alokatzen dugu Sasotetan, 30 metro karratuko. Bi auto sartzen dira. Autonomoek biltegi bezala ere erabili ahalko lukete. Garbitegi komunitarioa ere badauka. Harremanetarako zenbakia, 685 78 08 57.

LANA

ESKARIA
Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zenbakia, 630 68 27 16.
Baratzeko lanak egin edo pertsona helduak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia, 627 20 61 10.
Pertsona helduak zainduko nituzke. Interna moduan edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.
Pertsona helduen zaintzan lan bila nabil. Interna edo

orduka izan daiteke. Harremanetarako zenbakia, 666 09 67 61.
Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

SALEROSKETA

SALDU
Egur eta ikatz sukalde ekonomika saltzen dut. Deville marka frantsesa. Barruan labe handi bat, labearen azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandeja bat daude. Prezio negoziagarria. Harremanetarako, 696 76 38 68 edo 699 72 33 14.
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

IKASTAROAK

ESKARIA
Klase partikularrak emateko prest nago Lehen Hezkuntzan eta DBHko ikasleei. Harremanetarako zenbakia, 688 64 53 46.
Ingelesko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313 /bentley.ma@gmail.com

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak
Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose
Lanchas, Iñigo Garcia, Igone
Mendizabal eta Lide Hidalgo.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LARUNBATA 30

LASARTE-ORIA Tailerra
Nerea Bordagaraik *Haur eramaileak* tailerra eskainiko du. Gurasolandia programako ekimen hau 0-2 urte bitarteko lasarte-oriatar gurasoei zuzenduta dago eta, bertaratu ahal izateko, https://docs.google.com/forms/d/1rs5xqtUPwxtQMpxRzbnONMR_KuXmMjrk-HtPfuQFidQ/edit orrialdean izena eman behar da.

Antonio Mercero gunea, 10:00etan.

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Zaldibar berririk ez, ez Zubietako erraustegian ez inon lemapean, elkarretaratzea deitu du Aire Garbia plataformak. U30 Aldaketaldia ekimenarekin bat datorren ekintza da.

Okendo plaza, 12:30ean.

DONOSTIA Mobilizazioa

Zaldibarko hondamendiaren urteurrenaren bezperetan, Larreko Mahaiak manifestazioa deialdia egin du. Gladys Eneatik Bulebarrera egingo da mobilizazioa. U30 Aldaketaldia ekimenarekin bat datorren ekintza da.

Gladys Enea, 17:00etan.

OSTIRALA 5

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Nerea Mendizabalek *Lau hanketan eta oinez ibiltzen, erakutsi edo ikasi?* hitzaldia eskainiko du. Gurasolandia programako ekimen hau 0-2 urte bitarteko guraso lasarteoriatarrei zuzenduta dago eta bertaratu ahal izateko <https://labur.eus/ztaVq> orrialdean izena eman behar da.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Los Fixies contra los Crabots
Igandea: 17:00.

Ez, eskerrik asko. Gladysen leihoa (JBGA)

Ostirala 5: 19:00.

Bi urte lau hilabete eta egun bat (JBGA)
Larunbata 6: 19:00.

LABURPENA

Los Fixies contra los Crabots

Zuzendariak: Vasiko Bedoshvili, Ivan Pshonkin, Oleg Uzhinov. **Gidoia:** Eugeny Antropov, Georgy Vasilyev. **Musika:** DAndrzej Kozlowski, Sergey Sysoev, Georgy Vasilyev. **Herr.:** Errusia (2019). **Iraupena:** 83 minutu.



Elkar laguntzaren garrantzia

Haurren zinema atalean, *Los Fixies contra los Crabots* animaziozko film ikusi ahalko dute etxeko txikiek.




Eugenio profesoreak 3Dko Inprimatze sari nagusia irabazi zuen unibertsitatean. Horretarako inpresora barruan zeuden laguntzaile batzuk izan zituen, Fixiak.

Urte batzuk igaro dira eta garai horretan bere neska zenak, Rebecak, sekretua ezagutu eta

gizaki horien berri eman nahi du. Baina lehenik Eugenioren erroka luzatu dio munduak asmatzaile onena zein den jakiteko.

Eugenio laguntza izan dezake. Rebecak, berriz, berak sortutako Crabotsak izango ditu lagun. Fixiak baino azkarrago eta indartsuagoak dira. Borroka ederra izango dute biek eta euren laguntzok.

Argazki lehiaketan bozkatzeko azken egunak



Hauek dira TXINTXARRI aldizkarian antolatutako Filomena argazki lehiaketara aurkeztutako irudiak. Igandera arte duzue bozka emateko aukera!

Sartu
www.txintxarri.eus/lehiaketa
atarira bozka emateko!

SARIA:
AVENIDA Tabernako
PATATA-TORTILLA
eder bat



EPA LASARTE HHI

MATRIKULA ZABALIK: Urtarrilaren 27tik Otsailaren 4ra

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBHko titulua lortzeko moduluak).**
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**



Aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu!

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarte.eus




Zozheta!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS-en **AMAREN INTXAURRAK LIBURU + DISKOA** zozkatuko ditugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena urtarrilaren 31a baino lehen.



PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS

amaren intxaurrak



harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz



“KRISI GARAIAN,
PUBLIZITATEA DA
INBERTSIORIK
ONENA”

**HORREGATIK... DESKONTU BEREZIAK DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT**

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66